



## LIBURUA

# Errealitatea, koska bat estuago



MIEL ANJEL ELUSTONDO

## NOIZ ARTE ARRAZOI JUAN KRUZ IGERABIDE

ALBERDANIA, 2020

## IGOR ESTANKONA

**A**njel Lertxundiri opatzen dio liburua Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) "maite ditugunak galdu ahala, hitzen zurrunbiloan biziberritzen ditugulako". Perspektibarekin idazten du Igerabidek, badaki ezer ez dela betiko, eta beti izango dela hala. Badaki, halaber, ezer ez dela egia, eta egia bakar horixe dela.

Juan Kruzek Adunak idatzitako aforismoek, edo Hipokratesek Kosen idatzitakoek berdin, denek sortzen didate zalantzaren durundua barruan, denek ematen didate zer pentsatua. Aforistikoak ez dira nire obra gogokoenak, baina Igerabiderenak denak irakurri ditudala esango nuke: guztietatik atera dut ikaspenen bat, gozamenen bat. Nire musukoarekin sartu nintzen Pozaseko Elkar denda Jon Savageren Joy Division-en

inguruko liburua erostera eta *Noiz arte arrazoi* (Alberdania, 2020) honekin aterantz nintzen. Atera hortik kontuak.

Post-punketik bai baitauka Igerabidek: "Loreak Jainkoagandik badatoz, haiek elikatzeko simaurra ere bai. Uneren batean, Jainkoari kiratsa dario".

Liburu hau da hartu, hausnartu, eta uztekoa. Eta berriro hartu, hausnartu eta uztekoa. Aforismoei eurei buruz ikasten da hemen, aforismoen bidez: "Indian, aforismoak meditazioa ikasi zuen", eta "Txinan diseinatu zuten jadedeko aforismoa", edo "Erromak aforismo epigramatikoa zorroztu zuen". Arin. Zitzuan. Gai lodiak di-da ebazten dira hemen. Generorik laburrena ederki dominatzen baitu Igerabidek. Twitterreko txiorik fragmentatuenak baino laburragoak askotan, bere sententziak gezurra

bezain eraginkorrak dira, baina egia biltzen dute: "Historia aitzina doa, geldiezin; eta atzetik datorkio, ziztu bizian, ahanzturaren orban unibertsal". Egia bakar ez den egia horren bila ironia, lirismoa eta paradoxa darabiltza idazleak. Poesia eta aforismoa elkar ukitzen daude beraz liburu honetan.

Batzuetan ematen du Juan Kruz Igerabideren piezak ezin direla gehiago laburtu, eman dien horixe dela euren eite minimoa. Halakoetan jotzen du goia arte klase honek; kenduz-kenduz ondutako aberastasun bat delako. Gainera maxima edo sententzia baino harago doa, ez duelako ezer frogatu nahi, ez delako ezeren ispilu, soilik duda egiten duenaren duda, existitzen denaren solasa: "Bakoitzari izar bat dagokio, eta zulo beltz bat". ●